

LOAGI

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua baserriko lehengaien bidez, hainbat produktu natural eta osasuntsu ekoiztean datza. Gaur egun jendea asko kezkatzen da elikagaien inguruan: zer jaten duen, jaten duen horren kalitatea ahalik eta hobereana den, nondik datorren, etab. Sarritan ez gara ohartzen, geure ustez osasuntsua den janariaren bat jatean, espero ez dugun ondorio txarren bat ekar diezagukeela, ez baitakigu askotan zein den bere benetako jatorria. Arazo honi amaiera eman nahian, geure proiektua aurrera eramatea otu zaigu. Horregatik, geuk eginiko produktu guztietan kalitate hobereana bermatzen da, bakoitzaren jatorria zein den ezarriz eta %100 naturalak direla frogatuz.



BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun produktu batek merkatuan harrera ona izan dezan, funtsezkoa da besteengandik desberdintzen dituen ezaugarriak izatea. Produktu asko existitzen dira ekologikoak direnak, edo hobeto esanda, ekologikoak direla uste dugunak. Hemen ikus dezakegu zein den geure berrikuntza: geure produktua %100 ekologikoa izango da, etxean lortu ditugun lehengaiekin ekoiztua. Langileak ere, etxeok izango gara, baserri-ezagutza oparoarekin, txikitatik bertan bizi izandakoak baikara.

Geure helburua, gizarte beharrak asetzea da natura zainduz, osasuntsu elikatzen lagunduz, bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena hobetuz...

Gaur egun erraza da produktu transgenikoetara jotzea, erraza baitelako hauek erosi eta erabiltzea. Hauek gure osasunari egin diezaioketen kalteetan oinarriturik, geure proiektuak horrelakoak baztertu eta produktu naturalen alde egiten du. Bai osasuna zaintzea, baita natura zaintzea ere, gure planeta eta espezieak denbora luzean bizirauteko oinarria dela uste dugu. Honetaz baliatu gara, hain zuzen ere, geure proiektua aurrera eramateko garaian.

Bezeroekin ahalik eta harreman gertukoena edukitzen saiatuko gara; honetarako, denda bat alokatuko dugu, bezeroak bertara joan baitaitezke geure produktuak erostera. Gainera, beste metodo bat ere martxan jarriko dugu; hau da, internet erabiliko dugu. Gaur egun nahitaezkoa da teknologia berrien erabilera, aurrerapauso bat ematea ahalbidetzen baitigu. Geuk ere ez dugu atzean geratu nahi eta webgunearen bitartez bezeroek gure produktuak erosteko aukera izango dute eta geuk etxera eramango dizkiegu banaketa zerbitzua eskaintzen duen enpresa baten laguntzaz.

